

ARABAKO CAMPUSA

JARDUERA PLANA

2017-2018

1. Azpiegiturak

- 1.1. Erreforma, hobetze eta egokitzeko esku hartzeen plana gauzatu, hainbat ikastegitan.
- 1.2. Arabako Campusaren INIZIA enpresa mintegirako espazioa handitu.

2. Garapen akademikoa eta ikerketa garapena

- 2.1. Komunikazio zientifikoko programak sustatu, hainbat egitura eta ekitaldiren bidez.
 - ✓ 2017ko Zientzia Astea antolatu, Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzaren lankidetzaz.
- 2.2. Graduako Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan irakasle eta ikertzaileen gaitasunak eta prestakuntza hobetzera bideratutako jarduerak egingo dira.
- 2.3. Prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa erraztu.
 - 2.3.1. DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzako AGORA Teknocamp udako campus teknologikoa antolatu, Arabako Foru Aldundiaren, Egibideren eta Innobasqueren lankidetzaz.
 - 2.3.2. UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioari lagundu, Arabako lurralde historikoan egindako ikastaroen antolakuntzan.

3. Esperientzia gelak

- 3.1. Giza Zientziak tituluaren irakaskuntza antolatu.
- 3.2. Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroak (AUI) eta ikastaro osagarriak martxan jarri.
- 3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoz kanpoko jarduerak antolatu.
- 3.4. Ikasgeletako ikasleen eta ikasle ohien kultur elkarteari (ACAEXA-AEIKE) irakaskuntza jarduerak eta hitzaldiak antolatzen lagundu.
- 3.5. Ikasleek egindako "La voz de la experiencia/Esperientziaren Ahotsa" egunkaria prestatu eta zabaldu.
- 3.6. UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, baita beste erakunde eta elkarte batzuekin ere, lankidetzan aritu, unibertsitateko gainerako ikasleei eta/edo hiriari irekitako unibertsitate jardueren antolakuntzan eta eskaintzan.
- 3.7. Jardueren eskaintzari buruzko informazioa emateko harremanetan jarri Arabako Foru Aldundiaren Hirugarren Adinekoen Elkartegiarekin eta Gasteizko Udalaren Adinekoentzako Zentro Soziokulturalekin.

4. Hizkuntza garapena

Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren lankidetzaz:

- 4.1. Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) oinarriak diseinatzen hasi.
- 4.2. Euskararen erabilera sustatu unibertsitate eremuan.
- 4.3. Euskara teknikoa eta zientifikoa sustatzeko jarduerak bultzatu.
- 4.4. Irakasle-ikertzaileak eta AZPko langileak prestatzeko jarduerak egin.
- 4.5. Euskarazko irakaskuntzarako materiala prestatu, egokitu eta zabaltzeko laguntza eman.
- 4.6. Unibertsitateko kideei atzerriko hizkuntzak ikasteko laguntza eman: hizkuntza laborategiaren kudeaketa.

5. Ekintzailtza eta laneratzea

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzarekin batera:

- 5.1. INIZIA Arabacampus programa garatu, Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroaren (Bic Araba) lankidetzaz, Arabako Campusean ekintzailtza eta INIZIA oinarri teknologikoko enpresa mintegia bultzatzeko.
- 5.2. Araban ekintzailtza bultzatzeko egiten diren ekimenetan parte hartu.
- 5.3. Laneratzearekin eta enplegu guneekin zerikusia daukaten jarduerak zabaldu.
- 5.4. Enplegurako orientazio gunea (Elurreta) koordinatu.
- 5.5. Ikasle graduatuen eta enpresen arteko lan bitartekaritza sustatu.
- 5.6. Ikastegiei laguntza eta aholkua eman, enpresetako praktiken gestiorako.
- 5.7. Empleo-Gune 2017 Gasteizko Enplegu Foroa antolatu, Gasteizko Udalaren Enplegu eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren sailaren lankidetzaz.
- 5.8. Laneratzeari buruzko ikastaroak antolatu, Campuseko ikastegietan.
- 5.9. "Erasmus+ IkaslePraktikak UPV/EHU" mugikortasun programa antolatu eta kudeatu. Atzerrian praktikak egiteko UPV/EHUko gradu, master eta doktoregoko ikasleentzako beken programa bat da.
- 5.10. Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako enplegu guneei laguntza eman, gune horietan enplegarritasuna babesteko antolatutako programen difusioan eta kudeaketan.

6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak

- 6.1. Suteak hautemateko sistemak eta alarmak hobetu.
- 6.2. Larrialdietako planak eguneratu eta simulakroak antolatu, lanerako zehaztutako egutegiari jarraituz.
- 6.3. Arauzko aldizkako ikuskaritzak eta, hala behar bada, zuzentze neurriak egin.

7. Unibertsitate Hedakuntza

7.1. Kultur hedakuntzarako jarduerak.

EhuKultura programa zehaztu eta garatu, erakusketak, antzerkia eta musika emanaldiak antolatzeko.

7.1.2. Jatorrizko bertsioko film emanaldiak antolatu, Campus J.B. zikloaren barruan, beste erakunde batzuekin batera.

7.1.3. Kultur hedakuntzarako jarduerak indartu, eta bertako prentsan zein hedabide espezializatuetan zabaldu, sare sozialen bidez, prentsaurrekoen bidez, etab.

7.1.4. Hiriko kultur eragileekiko akordioak bultzatu (Montehermoso, Gauekoak, Vital Kutxa Fundazioa eta Artium).

7.1.5. Kultur jarduerak (kongresuak, mintegiak, lantegiak, ikastaroak eta jardunaldiak) antolatu campusean, laguntzak emateko deialdi baten bidez.

7.2. Unibertsitatearen irudia zabaltzeko jarduerak.

7.2.1. Iritzi artikuluen lehiaketarako deialdia.

7.2.2. Fantasiako ipuin laburren lehiaketarako deialdia.

7.2.3. Gasteizko CORTADA film laburren XXI. jaialdirako deialdia.

7.3. Kirol ekintzak

7.3.1. UPV/EHUko taldeen arteko barruko lehiaketa, Arabako Campusean.

7.3.2. Lauhilekoko ikastaroak eta bestelako kirol jarduera batzuk.